

Olatz Perez de Viñasprek irabazi du II. Gladys saria

Berria :



Olatz Perez de Viñaspre. M.R
/ FOKU [Tamaina handiagoan](#)
[ikusi](#)

ELGOIBAR. Olatz Perez de Viñaspre gasteiztarrari eman dio Gipuzkoako Foru Aldundiak II. Gladys saria. Ingeniari Informatikoa da Perez de Viñaspre, eta epaimahaiak aho batez onartu du hura saritzea, ibilbide akademikoari eta etorkizuneko erronkei aitortza egiteko.

EHUko Informatika Fakultatean egin zituen ikasketak, Sistemen Informatikako Ingeniaritza eta Informatika Ingeniaritza, eta Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamenduko masterra egin zuen ostean. Gero, masterreko gai beraren doktoretza egin zuen. Irakasle atxikia da egun, ikasketak egin zituen fakultate berean. 2018an Euskarazko Tesien VI. Koldo Mitxelena sariko ingeniari arloko saria jaso zuen, baita I. Ikerlari Nazioarteko Ikerketa Euskaraz kongresuko sari berezia ere.

Aldundiak, Puntueusek, Danobatgroupek eta EHUko Informatika Fakultateak ingurune digitalean dabilzan emakume gazteak saritu nahi izan dituzte. EHUko Informatika Fakultatean emango diote saria, irailaren 27an.

Sareko BERRIAzalea:

Irakurri berri duzun edukia eta antzekoak zure interesekoak badira, eskari bat egin nahi dizugu: *Berria* diruz babestea.

Zuk eta zure gisako sareko milaka irakurlek egindako ekarpenarekin, eduki gehiago eta hobeak sortuko ditugu. Eta, zuekin osatutako komunitateari esker, publizitateak eta erakundeen laguntzek bermatzen ez diguten bideragarritasuna lortuko dugu.

Euskarazko kazetaritza libre, ireki eta konprometitua eskaini nahi dizugu egunero; bizi zaren munduaren eta garaiaren berri ematen segitu.

[Izan BERRIAlaguna](#)